



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-01-16

VIURTEA 1.337.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

FACUNDO VITORIA LISBOA-DAKARREKO TIBAU TEAM LAGUNTZA MEKANIKOKO ARDURADUNA

«Gertatu denarekin, Lisboa-Dakar Rallya desagertu egin daiteke»

TOLOSA Sei urtetan hartu du parte tolosarrak Rallyan Tibau Team taldearekin; aurtan bertan behera geratu da

ARRISKUA «Afrikan gero eta eraso gehiago daude, eta antolakuntzak ezin ditu 2.500 bizitza arriskuan jarri», dio 7



I. GARCIA

JOSE LUIS OLANO ODOL EMAILEEN ELKARTEKO KIDEA

«Emaileen kopurua mantendu egiten dugu, eta hori ona da»

IRURA Beste hiru kidearekin batera, herrian egiten diren odol emateak antolatzen ditu urtean bitan 4

MAMUAK Berria
Mamuk misterio jolas kooperatiboa
www.alsia.net
943270033
alsia jostailuak

E Elkarrizketa**MIGUEL ARRETXE** Titirijai jaialdiko zuzendaria

Kultura» Txotxongilo jaialdiaren 25. urteurrena igaro ondoren, buru-belarri ari dira lanean To.pic proiektua 2009rako prest egon dadin.

HARRIET BELLOSO

Miguel Arretxe (Tolosa, 1945) Titirijai Txotxongiloen jaialdiko zuzendaria eta UNIMako lehendakaria da. Urte hauetako guztietako bizipenak 25. *titirijai Tolosa* liburuan bildu ditu eta Tolosako To.pic proiektuaren atzean dago.

Zenbat denbora egon zarete jaialdiaren liburuan lanean?

Ia urtebeteko lana izan da. 400 orrialde eta 1.200 argazki baino gehiago daude liburuan, eta material hau guztia biltzea ez d batere erraza izan. Edizio guztietan lagundu dutenen argazkiak biltzen saiatu gara eta hasieran uste genuena baino denbora gehiago eman digu lan honek.

Nahiz eta orrialde asko izan, zerbait kanpoan geratu al da?

Zenbait pertsona azkenean ez dira liburuan azaldu tamalez. Argazki askok denborarekin kalitatea galdu dute eta liburua egiten ari ginean publikatzeko desegokiak zirela iruditu zitzaigun. Azken batean emanaldi eta pertsona garrantzitsuenak azaldu dira, eta oso pozik gaude emaitzarekin.

Zenbat pertsona daude titirijai proiektuaren atzean?

25 edizio hauetan ehun pertsona baino gehiago pasa direla esan daiteke. Normalean 15 pertsona inguru egoten gara jaialdia prestatzen.

Zerk eragin zuen jaialdiaren sorrera?

Antzerki munduan txapelketa eta emanaldi ugari antolatzen genituen, baina gure benetako asmoa umeei antzerkia gerturatzea zen. Orduan ohartu ginen txotxongiloei eskaitzen zituzten baliabideak oso baliotsuak izan zitezkeela gure helburuetarako. Txotxongiloen hizkuntza oso simplea da, nahiz eta batzuetan nahiko konplikatu izan daiteke ere.

Zer oroitzapen bildu dituzu urte hauetan?

Lehenengo urteak oso bereziak izan ziren denontzat. Jendea harrituta ateratzen zen ikuskizunetatik, batez ere txotxongiloen ikuspegi klasiko bat zutelako. Duela urte asko herriko festetan ekitaldiak antolatzen ziren ere, baina denek sorgin maltzuraren ipuina kontatzen zuten. Jaialdiko lehen ikusleek istorio hori espero zuten eta normalean txundituta gertzen ziren ikusten zutenarekin.

Hasierako helburuak eta printzipioak mantendu egin al dira?

Antolatu diren edizio guztietan hasierako izpiritua mantendu da. Denbora honetan gauza asko ikasi



ESTI EZBEZA

«To.pic-ek Tolosa txotxongiloen munduko ardatz bilakatuko du»

ditugu, batez ere emanaldiak antolatzeko eta lan egiteko moduan. Jaialdian aldaketak eman dira, baina lehen esan dudan bezala, izpiritu mantendu egin da.

To.pic proiektuari buruz zer esan dezakezu? Noiz aterata zen eraikin hau egiteko ideia?

Jaialdiaren harrera ona ikusi genuenean eraikin berezi bat behar genuela erabaki genuen. Tolosan antzoki ugari egon dira eta daude, baina ekitaldiak leku finko bat behar duela uste dugu, eta azken urteetan buelta gehiegi eman ditu. Proposatzen ditugun antzezlanak oso arrakastatsua izan dira, eta hori dela eta, urte guztiaren zehar txotxongiloen emanaldiak eskainiko dituen antzoki bat egin nahi dugu.

Zer helburu bete nahi dira eraikin berri honetan?

Kultur eskaera bati erantzuna eman nahi diogu. Jaialdia, eta bere inguruan egiten diren ekintza guztiak oso ondo daude, baina hauetaz gain gauza gehiago antolatuta daitezkeela uste dut, museoak eta erakustaldiak, adibidez. Bertan txotxongiloen historia eta eratze prozesua bezalako gai interesgarriak jorratu daitezke. Dokumentazio gelak bat egongo da ere. Hementxe txotxongilo munduan ibiltzen direnek gauza berriak ikasteko eta lantzeko aukera izango dute.

Euskal Herri plazako kokapena

zuen proposamena izan da edo udaletxeak ezarri du?

Guk Tolosatik pasa diren alkate guztiei baldintza batzuk betetzen dituen leku bat eskatu diegu. Eskaera egin genuenetik kokapen ugari proposatu dizkigute: Arkauteko txaleta, gaur egun Gurutzeko Gorria dagoen eraikina, Tolosako Kasinoa, Ertzainaren egoitza zaharra, ... Azkenean 1999. urtean Euskal Herri plazako eraikina proposatu ziguten. Urte

hauetan udal aldaketak eman dira eta honak lanak geldotu egin ditu. Proiektua ez da merkea, sei milioi euro, eta diru guztia biltzea ez da lan erraza. Herriko egoera politikoa ona da, eta horri esker instituzio desberdinek egitasmo hau urrerera eramatea erabaki dute.

Zer suposatuko du Tolosarentzat eraikin honek?

Eraikin honek Tolosa txotxongiloen munduko erreferentzi bilakatu du. Gure herria osoezaguna

da arlo honetan, baina To.Pic honetan egongo diren berritasunak oso mesedegarriak izango dira Tolosaldeko kulturarentzat. Oso ondo ekipatuta egongo den antzokia ezarriko dugu, eta Titirijaiko emanaldiez gain, kontzertuak eta antzerkiak ere egin daitezke bertan. Memento honetan ekitaldi hauek Leidorren egiten dira, baina handiegia da jende gutxirako zuzendutako gauzak egiteko. Zine-turumeko ekitaldiarako antzoki

berri hau askoz egokiagoa dela uste dut.

Txotxongilo emanaldiak egongo al dira antzoki honetan?

Noski baietz. Ikastolei zuzendutako proiektu interesgarri batean ari gara lanean. Ikasturtean zehar umeentzako emanaldiak egongo dira, eta asteburu gehienetan antzezlanak antolatzeko asmoa dugu. Hori bai, hasieran ez ditugu antzezlan asko ekarriko.

Ekitaldi eta antzezen ugari antolatzen bada azkenean jendea txotxongiloetaz asper daiteke...

Agian arrazoia duzu, baina nire ustez proposamena ona bada jendeak ez luke txotxongiloetaz asperu beharrik. Gure iritziz urteko emanaldien plangintza jendearen harrearen arabera egin beharko da. Ekitaldi asko antolatzeak ez du esan nahi beti antzokia beteko denik. Museoak eta tailerrak Titirijai munduko profesional asko ekarriko ditu eta hori oso onuragarria izango da To.Pic-arentzat.

Noiz egongo da martxan?

2009ko otsailerako amaítuta egon beharko luke, baina kasu hauetan gertatzen den bezala, azkenean eraikitze lanak apur bat atzeratu egingo dira. Ikastolen eta ikasleen partaidetza oso garrantzitsua izango da proiektu honetan, horregatik 2009-2010 ikasturterako martxan egotea gustatuko litzaidake.



HARRIET BELLOSO

«2007an marka guztiak apurtu ditugu»

H. BELLOSO

Miguel Arretxe 2007ko Txotxongilo jaialdiari buruz ere aritu da. Iaz jaialdiak 25 urte bete zituen, eta espero zen moduan, «guztiz arrakastatsua» izan zen.

Zein da 2007ko edizioari buruz egiten duzun balorazioa?

Marka guztiak apurtu ditugula pentsatzen dugu. Inoiz baino ikusle gehiago hurbildu ziren emanaldietara, nahiz eta ikuskizun guxtxiago egon diren Jaialdiaren 25. urtemuga izanik egitaraua oso landua izan da. Lehenago Tolosan izan diren konpainiak ekarri ditugu, 2007ko edizio hau berezia izatea nahi genuelako. Ikuskizun berriekin etorri dira, eta orokorrean jendea oso pozik aterata da antzezlanetatik.

Jenderaren harrera ona izan da, beraz.

Oso pozik gaude jendearen harrearekin. Emanaldi askotarako sarrearak amaitu egin ziren baina zenbait aldaketa egin behar direla uste dugu, batez ere astean zehar egiten diren ekitaldietan.

Nolako maila egon zen beste urteekin konparatuta?

Maila altuko jaialdia izan da 2007koa. Txekiatik sei konpainia etorri ziren, eta batek ezik, besteek ikuskizun onak eskaini zituzten. Beste taldeen maila oso ona izan

zen, baina arrakasta gehien lortu dutenak Vietnamitak izan ziren ur gainerako txotxongiloekin. Emanaldi guztietarako sarrearak agortu zituzten bere proposamen desberdina eta exotikoarekin.

Zer iruditu zaizu garaipena lortu zuen antzezlan? Lortu zuen arrakasta espero zenuten edo sorpresa bat izan zen zuzentzako?

Espero ez genuen sorpresa atsegin bat izan zen. Hautaketa probetan ikusi nuenean umeentzako desegokia iruditu zitzaidan gaztelania poetiko bat erabiltzen zutelako. Baina epaimahaia osatzen zuten gazteek oso argi izan zuten eta hasieratik puntuazio altuenak lortu zituen. Niri obra asko gustatu zitzaidan eta umei gustatu izanak asko harritu ninduen.

Zer emanaldik izaten dute arrakasta gehiago, helduei zuzentzen direnak edo haurrei zuzendutakoak?

Jaialdiak adinik ez duela argi geratu da. Adinaren arabera istorio bat modu batean edo bestean azal daiteke. Helduentzako Txanogorritxuren ipuina molda daiteke, eta haurrentzako adibidez Don Kixoteren abenturak. Helduentzako saioetara joaten den jendea publiko fidela da, ez dira asko, baina aretoak beti beterik egoten dira. Familiarentzako, eta batez ere haurren-

tzako, jaialdia egun bereziak dira. Txotxongilo Olentzero eta Erregeen Kabalgatak bezala dira umeentzat.

Txotxongiloen jaialdia Abesbatza Txapelketarekin mailaka daiteke?

Gure jaialdiak ikusle gehiago dauka, baina esan beharra dago ere egun gehiago daudela. Abesbatza lehiaketak lau egun irauten ditu soilik, eta gainera txotxongiloekin alderatuz askoz emanaldi guxtxiago eskaintzen ditu. Guk bederatzigun zehar ehun ikuskizun ikusteko aukera ematen dugu. Nik uste dut ezin direla bata bestearekin aldratu, bakoitzak bere publikoa du, eta askotan jendea bitartea joaten da.

Nola joan zen Aranburu jauregiko erakusketa? Datorren urteetan errepikatuko asmorik ba al duzue?

Urteak pasa ahala maila igotzen dugu, eta jendearen iritziz, 2007koa erakusketarik politena eta ikusgarriena izan zen. Aurten Errusiako txotxongiloiek buruzkoa izango da, eta ziur gaude arrakastatsua izango dela ere.

Idea berriek ba al duzue 2008ko jaialdirako?

Sartugun edizioa amaitu zenean aurrerant jarri ginen datorren urteko jaialdian lan egiten. Programa-

zioaren %90a zehaztuta dago, eta urtea amaitu baino lehen dena erabakita utzi nahi dugu. Gainera, beste edizioetarako zenbait gauza aurreratu ditugu. 2009ko jaialdia Quebec-eko herrialdeari buruz izango da, eta 2010ekoan Japoniako txotxongiloak izango dira jaialdiko izarrak.

Erraza al da hainbeste nazioetako taldeak Tolosara ekartzea?

Oso lan gogorra dela aitortu behar dago. Urte asko daramatzagu mundu honetan eta hori esperientzia oso baliagarria da. Ikuskizun asko ikusten ditugu berritasunen bila eta beti ezagutzen ez dugun jendearekin lan egiten saiatzen gara. Gure jaialdiak garrantzi asko du mundu mailan, eta hori dela eta askotan ezezagunak diren antzezlanak eta txotxongilo taldeak gomendatzen dizkigute.

Zer ikuskizun edo talde ikustea gustatuko litzazuke Tolosan?

Egun, munduan zehar izugarrizko ikuskizunak ikus daitezke. Tolosa herri txikia da, eta nahiz eta gure jaialdiak garrantzi asko duen, ez du Madril, Bartzelona edo New York bezalako hiriek duten erakarpen indarra. Aurten ikusi ditugun antzezlan asko oso ikusgarriak eta liluragarriak iruditu zaizkit, baina ezin ditugu ekarri gure aretoak oso txikiak baitira. Zailtasun

tekniko eta ekonomikoengatik talde asko ekartzeko gogoekin geratu izan gara. Hala ere, horrelako ikuskizun bat lortu nahi bada gogor borrokatu behar da. 1988. urtetik egon gara Vietnameko txotxongiloak ekartzeko asmoarekin, baina diru arazoengatik ezin izan ditugu aurtengo edizioa arte ekarri.

Jaialdiari zer bait falta zaiola uste duzue?

Jaialdiari oraindik gauza asko falta zaizkiola uste dut. Balorazioak egiteko garaian oso kritikako gara gure buruarekin, eta beti egongo da zer bait hobetu beharko dena, baina hogeita bost urte eta gero erabaki arriskutsu gutxi hartu nahi ditugu.

Nolako garrantzia du zure ustez Titirijai jaialdiak mundu mailan?

Ez naiz egokiena iritzi bat emateko, baina ikusleak oso pozik ateratzen dira emanaldietatik eta horrek asko poztzen gaitu. Frantziako Avignon herrian egiten den txotxongilo topaketa mundiala alde batera utziz, Tolosako Europako jaialdirik garrantzitsuenetarikoa bat dela argi geratu da azken urteetan. Estatu mailan lehen postua gurea dela pentsatzen dugu, nahiz eta Segovian udaberrin antolatzen duten jaialdia ere goi mailakoa den.

E **Elkarrizketa**

JOSE LUIS OLANO › Odol-Emaleen Elkarteko kidea

L **Laburrak**

«Emaileak direnak mantendu egiten dira Iruran eta hori ona da»

Irura » Beste hiru kiderekin batera, Jose Luis Olanok herrian egiten diren odol-emateak antolatzen ditu urtean bi aldiz.

IMANOL GARCIA

Jose Luis Olano (Irura, 1962) 19 urte zituenetik ari da odola ematen. Odol Emaleen Elkarteko kidea da eta beste hiru kiderekin (Eugenio Loidi, Joxi Lasa eta Gregorio Lasa) Iruran egiten diren odol-emate saioak antolatzen ditu. **Zenbat denbora daramatzazue Iruran odol-ematea antolatzen?** 2002ko ekainean hasi ginen antolatzen laurok eta berdinok jarraitzen dugu. Urtearen hasieran eta udaren hasieran egiten dugu. **Nolatan antolatzen duzue Iruran?**

Anoetara etortzen ziren eta esan ziguten Irura hazten ari zela eta ea antolatuko genuen hemen odol-ematea. Ni lehendik ere odol-emailea nintzen. Tolosara joaten nintzen eta urte dezente daramatzat. Joxiri komentatu zioten eta berak niri komentatu zidan. Tolosan odola emateko nahiko toki desegokiak zeuden, ilara handiak eta Iruran bi aldiz antolatzeko aukera ikusten zen. Horrela denontzako hobe izango zela pentsatu genuen: leku aldetik hobeto eta etxe ondoan. Eta horrela hasi ginen. Hasieran, bi urtetan, urtean behin baka-

rrik egin genuen. Gero ikusi genuen erantzun ona zegoela eta bi alditan jarri genuen.

Eta jende gehiago animatzen joan da?

Jende berria hasieran agertu zen, batez ere gaztea. Ona da mantendu egiten direla. Urtetik urtera mantendu egiten dira.

Zer prestatzen duzue lauron artean?

Ikastolako areto nagusia prestatzen dugu. Gero jatekoa ere ekartzen dugu. Okindegikoak opilak eta pastelxoak ematen dizkigu. Urdaitegikoak ematen dizkigu hestebeteak eta gero elkartetik ardoa eta ura ekartzen dugu.

Zenbat odol-emaile izaten dira herrian?

Hasieran 35 inguru ibiltzen ginen, baina orain 40tik pasatzen gara. Kopuru aldetik Irura batentzako ondo iruditzen zaigu. Esan bezala, ona da mantendu egiten direla emaileak direnak.

Zein dira odola emateko baldintzak?

Adinez nagusi izan behar zara. Gero pisuaren arabera ezberdintasunak izaten dira. Gizonezkoek bi hilabete pasatu ondoren berriz



I. GARCIA

eman dezakegu eta emakumezkoek hiru hilabete ondoren. Gaixotasun batzuk pasatuta badituzu, hepatitisa adibidez, ezin duzu eman. Gero, piercing-a edo tatuaje bat egin baduzu, urtebetez ez dute uzten odola ematen. Bidaiaren bat eginez gero ere zenbait herrialdeetara, urtebetez ere ezin da eman.

Orain gutxi dominak eman dizkiote Irurako hiruri, ezta?

Bai, zilarrezkoak eman dizkiote Iñaki Arregi, Jose Ramon Epelde eta Loli Izagirreri.

Zu zeu zergatik hasi zinen odola ematen?

Zain bat irekita izaten nuen eta batez ere udan, beroarekin eta, sudurritik odola ateratzen zitzaidan. Eta esaten zidaten hori gertatzen zitzaidala odola soberan nuelako eta ematen hasi beharko nuela. Nolabait lelokeria horrengatik hasi nintzen eta gero jarraitu egin nuen. Denboraldi batez egon nintzen eman gabe eta gero urtean gutxienez bi aldiz ematen dut.

Zer esango zenioke pertsona bati odol-emaile egiteko?

Batez ere besteei laguntzeko dela. Odola beti behar da, ebakuntzak egiteko, istripu bat izaten denean...



47 lagunek eman dute odola

IRURA » Urtero bi saio antolatzen dituzte Iruran odola emateko. Herrengun arratsaldean egin zuten urteko lehenengoa. Bigarren saioa udaren hasieran izaten da. Aurtengoa uztailaren 16an egingo da. Herrengungo

saioan 47 lagunek eman zuten odola, hau da, ohiko kopuruaren inguruan, Irurako odol-ematea antolatzen dutenek azaldu dutenez. Bide batez, antolatzaileek herritar oro animatzen dute odola ematera. I. GARCIA

KZgunea ostiralero irekiko dute aste honetatik aurrera

ANOETA » Hilaren 18tik aurrera Anoetako KZgunek ostiralero irekiko ditu bere ateak 16.00etatik 20.00etara, edonork internet erabil dezan. Bertan norberak bere kabuz nabigatzeko aukera izateaz gain, bestelako zerbitzuak ere emango dituzte: oinarriko internet ikastaroak, lizenpe txartelari buruzko ikastaroak (hauek egin ahal izateko lizenpe txartela eduki behar da eginda, eta hau bideratu daiteke KZgunean, udaletxean, kiroldegian edo liburutegian) eta herriko taldeen web orria egitea (doan egin dezakete). Guzti horretarako KZgunera edozein ostiral arratsaldetan joan daiteke eta bertako dinamizatzailearekin, Eneko Loran, hitz egin. Berak lagunduko die proiektua martxan jartzen.

Galdaragile Eguna ospatuko dute hilaren 26an

ALKIZA » Hilaren 26an Kaldereroen Eguna ospatuko dute herrian. Santio ermitatik plazara abiatuko dira 17:30ean eta bertan kanpamendua egingo dute. Suaren inguruan kantua, jolasak eta txokolatada izango dira. Ondoren herriko kaxkoari bira emango diote. 20:30ean afaria egingo dute Elizegin. Jatekoa bakoitzak berea eman beharko du. Aurretik txartelak hartu beharko dira bertan. Entseguak egin ari dira egun horretarako. Aste honetan, gaur 20:30ean eta larunbatean 16:30ean, Kultur Etxean.

Aurrekontua onartzeko osoko bilkura, gaur

VILLABONA » Ezohiko osoko bilkura egingo dute gaur, 20:00etan, Villabonako udaletxean. Gai nagusia Udalak aurkeztutako udal aurrekontua onartzeko proposamena izango da.

Ikastaroetan izena emateko aukera

ZIZURKIL » Hainbat ikastaroetan izen-ematea zabalik dago etzi arte: dantza afrikarra (asteazkenetan, 19:30etik 21:30era), patchwork (asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara), haurrentzat marrazketa (asteleheneretan), haurrentzat euskal dantza (asteazkenetan 17:15etik 18:15era) eta haurrentzat dantza modernoa (astearte edo ostegunetan 18:15etik 19:15era).

Egutegiaren eta historia liburuen banaketa

ZIZURKIL » Udala 2008ko Zizurkilgo egutegia banatzen ari da. Interesatuak udaletxera edo udal bulegoetara joan behar du. Bestalde Zizurkilgo historiari buruz argitaratu den azken liburua ere banatzen ari da Udala leku berdinetan. Horretarako etxetara bidalitako eskutitza aurkeztu behar da.

Mikel Onsalo aresoarra, ipuin lehiaketan irabazle

Literatura » Leitzako Patricia Vicente eta Judit Saizar II. Mikro Ipuin Lehiaketako azken fasera iritsi ziren haien lanekin.

ERREDAKZIOA

Mikel Onsalok Nafarroako ikasle-arteko II. Mikro Ipuin Lehiaketa irabazi du. Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Argitaletxeak antolatzen dute lehiaketa hau. Mikel Onsalok, *Intze*, Leitzako Amazabal Institutuko DBH 2. mailako ikaslea da. Bere ipuin sarituak *Udazkena* izena du.

Eskolan proposatu zieten lehiaketan parte hartzea. Bere irakaslea Arantxa gai ezberdinak idazten joan zen eta «miri udazkena gustatu zitzaidan. Udazkena heriotza gogorarazten dit, horregatik gaztatornondo zahar batekin lotu nuen». *Intze* deitzen diote Mikel Onsalori, Berastegiko aiton-amona etxearen izenetik hartuta, hain zuzen.

Iruñera bidali zuten ipuina, lehiaketan parte hartzeko asmoz, eta «sorpresa» handia izan zen Onsalorentzat saria irabaztea.

Leitzako bi lan azken fasean

Aurtengo lehiaketan 359 lan aurkeztu dituzte. Epaimahaikideek aurkeztutako lanen kalitatea azpimarratu dute: «Nabarmena asmo literarioetan, egituretan eta hizkuntza ere oso ongi landua».

Saridunek diploma eta liburu sorta bat jasoko dute, baina Kirmen Uriberen bisita Amazabal institutura izanen da saririk aipagarriena. Idazlea otsailean joango da Leitzara eta bertan sari banaketa egingen da.

Mikel Onsaloren lanaz gain, Amazabalgo beste ikasle batzuen lanak ere iritsi ziren lehiaketako azken fasera: horien artean, Patricia Vicenterena (*Abarkak*) eta Judit Saizarrena (*Nire Lilia*).

Sahararako produktu bilketarako deia

Gizartea » 10.000 kilora iristea dute helburu, eta «oso ondo» doala adierazi du Tolosaldea Sahararekin elkarrekin.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Saharara produktuak bidaltzeko kanpainaren baitan gaude murgilduta. Aurtengo helburua 10.000 kilo biltzea da, eta dagoeneko 2.500 daude. Oraindik ez dute pilatutako guztia bateratu: antolatzaileak «oso ondo» doala adierazi dute.

Horren adierazle da Tolosako Triangulon ikusgai dagoen kartel handia: bertan, zenbat kilo bildu dituzten adierazten dute, eta joan den urtean garai honetan baino

kilo gehiago bilduak dituztenez, itxaropentsu agertu dira elkarteko kideak aurtengo erronka gainditzeko orduan. Dena den, aurtengo «inoiz baino behar handiagoa» dutela kanpamentuetan azaldu dute, iristen diren laguntzak gero eta eskasagoak baitira. Horregatik, parte hartzera animatzen dituzte herri-tar guztiak.

Tolosaldeko gutxienez 14 herri-tan dago produktuak uzteko aukera: aurtengoa, jakina den bezala, hegala, azukrea, dilistak, konpresak eta arroza dira utzi beharrekoak. Herrietan data ezberdinak proposatu dituzte produktuak uzteko.

Diruz laguntzeko aukera ere badago, eta horretarako elkarrekin kontu korronte zenbaki ditu: 2101 0067 22 0011 180866 (Kutxa), eta 21001758 68 02 00077750 (Caixa).

» HERRIZ HERRI

- **Alegia.** Kultur Etxean, udaletxean eta ikastetxeetan.
- **Alto.** Eskolan eta udaletxean.
- **Anoeta.** Ikastetxean, udaletxean, dendetan eta Kultur Etxean.
- **Belauntza.** Udaletxean eta Kultur Etxean.
- **Gaztelu.** Udaletxean eta Kultur Etxean.
- **Ibarra.** Uzturpe ikastetxean.
- **Ikaztegieta.** Udaletxean, Kiroldegian eta ikastetxean.
- **Irura.** Ikastolan, udaletxean, dendetan eta Kultur Etxean.

- **Larraul.** Udaletxean.
- **Leaburu.** Udaletxean eta Kultur Etxean.
- **Lizartza.** Udaletxean eta eskolan.
- **Orexa.** Udaletxean.
- **Tolosa.** Maxi Eroski, Eroski Center eta BM supermerkatuetan eta Inmakulada, Samaniego eta Laskorain ikastetxeetan daude janari bilketa guneak.
- **Villabona.** Udaletxean eta Eroski dendan utzi ahaliko dira produktuek.

S Soka motzean

«Karduak bere xarma dauka, baina arantzak dauzka»

SUSANA GARCIA

Lore saltzailea

NEREA URBIZU

15 urte daramatza Susana Garciak (Tolosa, 1964) Tolosako Kaiz lore-dendan lanean.

Ezkondu berri denak zergatik darama loreren bat?

Ohitura bat da, apaingarri bat gehiago.

Egia al da loreek entzuten dutela?

Gurekin komunikatzen dira, baina, entzun, ez dut uste.

Etxe batean falta behar ez den landare bat?

Beaokarnea bat.

Zure etxean sartu eta zein da ikusten den lehen lorea?

Etxeko alegria uda bada: orain ez, zimeltzen direlako.

«Kardua baino zatarragoa zara», «alhelia baino ederragoa».

Karduak bere xarma dauka, baina arantzak dauzka. Ahuntz praka (alhelia) polita da eta usain onekoa gainera.

Plastikozko loreak zertarako?

Elementu naturalekin konbinatzen jakinez gero, ondo gera daiteke. Gainera, oraingoek ez dirudite gezurrezkoak.

Zein da lorea saltzeko garairik onena?

Udaberria: landare eskaintza handiagoa dago.

Usain bat?

Limoiarena.

Lore bat?

Anemona.



N.U.

hitza ren eskutik

G P U N T U A
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsoaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

Gipuzkoar futbola



» Zilarrezko jaurtiketa

Jon Altuna

Urtea, 2008a, ondo hasi dugula esan genezake. Jokatu bi partiduetan garaipen bat eta berdinketa bat lortu ditugu eta Soriar lurraldetara egin behar izan genuen bidaia, ez zen bidaia luzea izan, eta gorputzak hori eskertzen du. Lau ordu inguru kostatuta ziztaigun gure autobus maitean, eta denbora horretan betiko karta jokoak, pelikula ikustea, irakurketak, tertuli txikiak... izan genituen.

Lurralde hotza da benetan Soria (Espainia). Arratsalde partean iritsi ginen eta termometroak zero azpitik markatzen zuen. Honela, tenperatura hotz hauek zelaia iragintzen zuten eta zati batzuk izoztuak zeuden jokoak asko zailtzen zutelarik.

Banako emaitza lortu genuen benetan indartsua den talde baten aurka. Galtzen hasitako partidua berdintzen jakin genuen eta puntu oso garrantzitsua lortu goierarengatik borrokatuko duen talde baten aurka. Emaitza honekin jeitsiera postuak 9 puntura utzi ditugu eta guretzat ametsa diren igoera postuak 3 puntutara daude.

Igoerari buruz hitz egiterako orduan, ezin Reala aipatu gabe utzi. Izan ere, ixil-ixilik puntu bakar batera daude eta faborritzat jo genezake igoera lortzeko. Kritika asko entzun behar izan ditu taldeak baina beraiek buru-belarri jarraitu dute lanean eta pixkanaka goian ipintzea lortu dute. Jendea orain itxaropentsu agertzen da taldearekin eta datozen aldaketekin denboraldi amaieran goran egotea espero da.

Honela gipuzkoar futbola egun zorian dagoela esan genezake eta ea denboraldi amaieran bi talde gure helburuak lortzen ditugun.

@ Hitzeekin jolasean. Blog berri bat dago martxan gure webgunean: *hitzeekin jolasean* izena duen proposamen berria hain zuzen ere. Irakurleen artean osatzen ari den ipuina da eta *Eclipse* izena du. Irakurle bakoitzak hiru bat esaldi idatz ditzake, ahalik eta parte-hartze zabalagoa izan dadin. Sartu gure webgunean eta irakurri orain arte osatu den istorio xelebre. Gure blog berriak barnean duzun idazle hori ateratzeko aukera eskaintzen dizu atal berri honetan. Egin jolas hitzeekin, *Hitzeekin jolasean*:

www.tolosaldeko-hitza.info



Animaliak bedeinkatuko dituzte bihar, San Anton egunean. MADDI SOROA

San Anton egunean jaia eta animaliak bedeinkatzera

Berastegi » Urtero bezala San Anton ermitan 10:00etan meza egingo dute, ondoren hamaiketako.

Meza eta animaliak bedeinkatu ondoren, helduak eta gazteak hamaiketako egingo dute, «San Antoni eskerrak emanaz».

Egipziar Santua

Egipziarra eta 251. urtean jaioa omen zen San Antonio monjea. Gazte zela, zituen ondasun guztiak oparitu eta ermitau bilakatu zen. 105 urte arte bizi omen zen eta santu bezala ohoratzen da. Besteak beste, harakinen, lurperatzaileen eta animalien patroitzat hartzen dute eta urtarrilaren 17an ospatzen da haren aldeko eguna.

Animalien patroiz izanik, urterik urte, bada Berastegin San Anton gogorarazten duen ohiturarik. Usadioak diotenaren arabera, animaliak bedeinkapena jaso ondoren, urte ona jasotzen omen du. Eta hala egiten dute urtero berastegiarrak, oilarra, zakurrak, ahuntzak... hartu eta eta San Anton ermitara eramanez hauek urte ona izan dezaten.

ASIER IMAZ

Animaliak izango dira bihar protagonista Berastegin. «Urte oparota izan dezaten», San Anton ermitan bedeinkatu egingo dituzte. Santuaren eguna ordea, hainbat herritarrek ere ospatuko dute.

10:00etan meza ermitan

Urteroko ohiturari jarraituz, 10:00etan Berastegiko San Anton ermitan meza egingo da. «Urteroko ohitura bilakatu bada ere San Anton Santuaren ospakizuna, urte batzuetan ohitura hau galtzearegon zen. Egun herritar gazteenak dira usadioa mantenduz animaliak bedeinkatzera eramaten dituztenak».

Kutxako ikastaroetan izena emateko aukera

Berrobi » Soinketa, sukaldaritza eta euskal dantzen ikastaroak antolatu dituzte Kutxak eta Udalak.

A. IMAZ

Kutxako ikastaroetan izena emateko epea urtarrilaren 23ra arte egingo da zabalik, Berrobiko Udalak jakinarazi duenez. Izena emateko edo informazioa lortzeko, udaletxera edo Kutxako bulegora joan behar dela adierazi dute anto-

latzaileek. Telefonoz ere lortu daiteke, 943684394 edo 902540040 telefono zenbakietako batetara deituz.

Hiru ikastaro

Sukaldaritza, soinketa, Pilates metodoaren bitartez, eta euskal dantza ikastaroak antolatu dituzte Kutxak eta Udalak. Izena ematearekin batera, 35 eurotik 56 euroara doan matrikula ordaindu beharko da.

Ikastaroaren amaieran, Udalak Berrobiko jendeari matrikularen %20a itzuliko diolar jakinarazi du.



Bengoetxea VI.a airez erasoan eta Patxi Eugi begira Tolosako Beotibarren. A.I.

Oinatz Bengoetxea eta Patxi Ruiz 22-14 nagusitu ziren

Pilota » Beotibar pilotalekuan Lasa-Eugi bikoteak amore eman behar izan zuen herenegun Bengoetxea-Ruizen aurka.

A. IMAZ

Partida luze eta borrokatua ikusteko aukera izan zen herenegun Tolosako Beotibar pilotalekuan. Binakako Txapelketaren barnean, Eugi-Lasa eta Bengoetxea VI-Ruiz bikoteak jokatu zuten partida eta amaieran urdinak 22-14 nagusitu ziren. Ondorioz, Oinatz Bengoetxea leitzarrak Txapelketako lehen partida irabazi zuten.

Hasieratik urdinak nagusi

Astelehenero bezala, Beotibarren antolatu zen pilota jaialdira jende ugari hurbildu zen. Norghegioketa nagusian lau nafarren arteko

lehia zegoen aurreikusirik. Orain dela astebe bezala, Eugi eta Lasa III.a alde batetik eta Bengoetxea VI.a eta Patxi Ruiz bestetik.

Eugi eta Lasak bigarren partida zuten txapelketan, baita Beotibarren ere, eta herenegun ere galdu egin zuten. Irujoren lekuan jokatzeko ari den Patxi Eugi tantomaitzen dituen gabeziak agerian geratu ziren berriro ere herenegun Tolosan. Aspeko bikoteak hurrengo faserako sailkapena maldan gora du iadantik.

Partidu bat galdu eta bestea irabazi dute Oinatz Bengoetxea eta Ruizek. Tolosan haseratik nagusi izan ziren, nahiz eta tantu gogor asko jokatu. Amaieran, urdinak jaun eta jabe izan ziren, gorriak 14ean utzi zituztelarik. Tantu politak ikusteko aukera ere izan zen partida luzean, Bengoetxeak airez eginak edo Ruizek txapa gainean moztuta lortuak besteak beste.

Rekondok aurrera egin du Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan

Aizkolariak » Jon Rekondo eta Miel Mindegiak hurrengo faserako txartela lortu zuten iragan asteburuan.

A. IMAZ

Lekunberrin (Nafarroa) lehia erabakiorra jokatu zen iragan igandean Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketari zegoen. Final-laurdenetarako lehiari, alde batetik Mindegia-Rekondo eta besteetik Mugeza-Barberena bikoteak aurkitzen ziren. Irabazleek aurrera jarraituko zuten bezala galtzai-

leak Txapelketatik kanpo geratu ziren. Hil ala biziko dema jokatu zen beraz Lekunberrin.

Leitzar gazteak eta Miel Mindegiak hasieratik hartu zuten aurrea. Hala eta guztiz ere, Mugerza-Barberena ez zuten denbora handirik galtzen. Gauzak horrela, laugarren proban, zutikako eta etzandako enbor bana moztu ondoren, 3 segundoko alde eskasa zuten Rekondo eta Mindegiak.

Azken bi probetan ordea, batez ere txanda librekoan, irabazleak jaun eta jabe izan ziren, guztira minutu bat eta hamairu segundoko alde lortu zutelarik norghegiokaren amaieran.

E Elkarrizketa

FACUNDO VITORIA › Lisboa-Dakarreko Tibau Team laguntza mekanikoko arduraduna

Kirola » Segurtasun kontuak direla eta, aurtan ez da Lisboa-Dakar Rallya egingo; beraz hara joan gabe geratu dira Fakundo Vitoria eta Tibau Team-eko bere kideak

ESTI EZEIZA

Sei urtetan hartu du parte Fakundo Vitoriak (Tolosa, 1963) Lisboa-Dakar Rallyan. Beraiek kamioiarekin joaten dira autoei laguntzeko. Hala, Michubishi Ralliant taldearentzako piezakar eraman ohi dituzte Vitoriak eta Tibau Team taldeko bere kideak. Aurtengoan, dena den, segurtasun arazoak direla eta lasterketa bertan behera geratu da. **Aurtan ere Lisboa-Dakarrera joateko asmoa zenuen.**

Bai, hasiera batean bai. Baina azken orduan istripu txiki bat izan nuen eta atzera bota nintzen. Hala ere, gero bertan behera uztea erabaki zuten. Dena den, honen aurretik, Portugalen izanginen autoak begiztatzen. Hemen, federazioko komisarioek autoaren dokumentazioa, agiriak, eta ziurtasun baldintzak aztertzen dituzte. Hala, autoa ongi baldin badago, parte hartzeko baimena ematen dizute.

Noiz jakin zenuten rallya bertan behera geratzen zela?

Une horietan zerbaite gertatzen zena susmoa bazegoen. Abenduaren 23an edo 24an frantziar bikote bat tirokatu zuten eta hortik hasi ziren arazoak. Gero, esaten dutenez, Mauritaniako armada errudunen bila hasi zen. Aipatu zuten beste tiroketa bat ere izan zela eta soldadu pare bat zauritu zituztela. Hortik aurrera segurtasun arazoak zeudela ikusi zen. Mauritaniako agintariek zioten soldadu gehiago jarriko zituztela. Baina horrelako zerbaite gertatzen bazen, antolaketaren aseguruak ez zuten horrek kargu egin nahi, gauza serioak baitziren. Hau dena, abenduaren 27an edo izan zen, eta azkenik urtarrilaren 4an erabaki zuten bertan behera uztea proba. **Dena den, hasieran, ibilbidea aldatzea proposatu zuten, eta rallya egitea.**



HITZA

«Gertatu denarekin, proba hau, Dakar bezala desagertu egingo da»

Bai, barruko, basamortuko etapak kentzea pentsatzen zuten, hauek baitziren arrisksuenak. Tiroketak, normalean, basamortu inguruetan egiten baitituzte. Horrela, Dakarra kostaldetik igaroko zen, eta ez zen punta-puntako lasterketazango, baina egin zitekeen. Hala ere, geroago, Marokon zerbaite gertatu zitekeenaren mehatxuak ere egin zituzten, eta proba bertan behera uztea erabaki zuten. Azken finean, lehenago da bizitza rallya baino.

Zer iruditzen zaizu, hartu duten erabakia?

Nik uste nuen egingo zela eta baita urte askotan parte hartzen dabiltzanek ere. Pentsatzen nuen, barruko etapak kendu eta laburragoa egingo zutela. Gutxienez, jendea

eta autoak zerbaite ibiltzeko. Dena den, hartu duten erabakia ongi dago ziurtasunaldetik. Zailagoa da pentsatzea arazo handietan sartu dela proba hau prestatzeko.

Dena den, ezinal zuen antolakuntzak lehenagotik aurreikusitako proba bertan behera geratuko zela?

Beste zenbaite urtetan ere izan dituzalantzak antolakuntzak, baina hauetan, puntu batean gelditu denak, hegazkinean sartu eta beste estatu batera eraman zituzten probarekin jarraitzeko. Aurtan, ordea, Marokon eta Mauritaniaren zeuden arazoak, horregatik, ezin zen horrelako jauzirik egin. Hau abenduaren amaierako istilu horiekin dago lotuta, eta azken momentuan gertatu zen dena.

Lisboa-Dakar prestatzen diru eta

denbora asko joaten zaio jendea-ri.

Ia ia urte guztiko prestatketa bat izaten da. Etxe ofizialek arazo gutxiago izango dituzte, fabrikaren babesle baitaukate. Baina pribatu kasuan, babesle bila ibili beharra daukate eta %80a beraien poltsikotik jartzen dute. Gasolina ere hilabete lehenago erosten da, eta orain, han, basamortuan geratu dira milaka litro horiek.

Galera handia suposatuko du rallya bertan behera geratzea?

Jendea ez da ohartzen, zenbat diru gastatzen den horretan. Prestaketan aritzen den jendearen kasuan ere bai. Esaterako gu, joan den urtean bigarren mailako kotxe bat, Mitsubishi bat, prestatzen lau hilabetetan aritu ginen. Aurtan be-

rriz, gure taldeak hamabi edo hamalau milioi pezetako gastua egin du erregaitan, eta hau, basamortuan geratu da, ezin da berreskuratu. Bestetik, auto ofizialek oso maitatea dute, kalkuluen arabera, proba hau irabazten duen marka duten autoak, hurrengo urtean zehar %20-30 inguru gehiago saltzen baitira.

Afrikarrentzat ere izango zen galera hori.

Bai, jate txite, tailer, aterpetxe eta abarrentzat galera handia da. Jende asko joaten da hara, parte-hartzerak, laguntzera nahiz ikustera. Mauritaniaren esaterako, urteko irabazien %30a Dakarrari esker da.

«Gure taldeak 12-14 milioi pezeta inguru gastatu du erregaiari; basamortuan geratu da»

«Afrikan gero eta eraso gehiago daude; eta, antolakuntzak ezin ditu 2.500 bizitza arriskatu»

Izan ere, batzuk bi hilabete lehenago-edo, autoak frogatzera joaten dira. Horregatik, pena handia ematen didate, hemen autoak prestatzen-eta dirua galdu dutenek, baina baita afrikarrek ere.

Pena emango zizun proba bertan behera geratu dela jakiteak?

Bai, baina nire ustez, Dakar bezala proba hau desagertu da. Izan ere, Afrikan gero eta eraso gehiago daude politika aldetik. Horregatik, antolakuntzak ezin du 2.500 lagun bizi arriskuan jarri.

Egoera okertuz badoa, zein izango litzateke irtenbidea?

Beste irteera batzuk badaude. Esaterako Hego Ameriketako ibilbide batean, Txile inguruan. Hori izan daiteke bat, baina hemendik hara autoak, kamioiak... eramatea asko garestitzen da.

Lasterketaren atzean beste hainbat gauza daude.

Esaterako, hemendik gauzak ematen ditugu afrikarrei laguntzeko. Mugak errazago igarotzen dituzte gure kamioiek eta hirietan, herritarrei banatzen dizkiegu hemendik eramandakoak. Esaterako, joan den urtean arropa eraman genuen eta han banatu genuen.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

H Hilberria

RAMON AGINAGA GARIN APAIZA

Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Anai-arrebak: Joxepi (†), Dominica (†), Carmen, Columba, Miguél (†), Harbil, Gemma eta Maixabel; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zarauzko Santa Maria La Real parrokia elizan egingo den hiletan-elizkizunerako. Aldez aurretik, mila esker.



Hilbidea: Herrikobarra 17, 2. A

Oharra: Hilbidea Zarauzko Tanatorioan egingo da gaur arratsaldeko bostak arte; ondoren Parrokian izango da

ZARAUZ
2008ko urtarrilaren 16a



GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Kirol taldeek eta kirolariek urteko ekitaldietarako udal laguntzak eska ditzakete hilaren bukaera bitarte.
- **Berastegi.** Bihar, Festa eta animalien bedeinkapena San Anton ermitan: 10:00etan meza eta ondoren, hamaiketako.
- **Tolosa.** Zaldunita Bezperako emakumeen danborradan parte hartu nahi dutenek 699 551765 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.
- **Tolosaldea.** Sahararako janari bilketa (dilistak, arroza, hegaluzea, azukrea eta konpresak) Tolosaldeko kultur etxeetan eta udaletxeetan.
- **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak Baztan aldera, Erratzu, Autza (1.306 m), Antzola, Argañeta (1.006 m) eta Aldude irteera antolatu du iganderako. Izen-ematea, 943 694458 (Joxan) telefonon eta elkartean bertan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iriztien erantzunik.



Bisaurin mendia igoko dute Oargikoek

TOLOSA Oargi mendi elkar-teak gogor ekin dio 2008. urteari. Hala, aste-buru honetan bertan irteera antolatu dute. Hain zuzen ere, Pirinioetara egingo dute bidaia, asteburu honetan, hilaren 18tik 20ra. Ostiralean Lizara aterpetxera helduko dira. Larunbatean Pirinioetako Bisaurin mendia (2.640 metroko altuera duena) igoko du mendizale taldeak eta igandean Bernera mendilerroa igo ondoren itzuliko dira Tolosara. Bertara joate-

ko interesa dutenek 637830380 telefono zenbakian eman dezakete izena. Mendi elkartetik Tolosaldea eta inguruko mendizale guztiak animatu nahi dituzte irteera honetan parte hartzeko. Halaber, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera oraindiko izango dela gogorarazi dute elkar-tekoek. Horretarako, arratsaldean Oargiko egoitzatik pasatzea baino ez dago. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Iker (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu asko Oier, amatxo eta aitatxoren partetik.



Zorionak!

Danel Barriola Goikoetxea. Gaur 2 urte. Etxeko guztien partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak